



**SORTZAILEEN
GUNEA**

**ESPACIO
DE CREADORES**

EU / ES

TABAKALERA



Zer da SORTZAILEEN GUNEA?

Sortzaileen gunea artistak, sortzaileak edo kultur eragileak arte proiektu bat abian jartzeko edo garatzeko leku bat da.

Aholkularitza edo baliabide tekniko eta lanerako espazioen bila jo dezakete bertara.

Sortzaileen guneak sektorearen profesionalizazioan laguntzeko hainbat zerbitzu eskaintzen ditu. Gainera, formakuntza eta ikusgarritasuna garatzeko programak eskaintzen ditu.

Sortzaileen gunetik arte praktikak bultzatzen ditugu, beren formatu eta fase guztietan. Helburua artisten eta arte-sorkuntzaren, pentsamenduaren, kudeaketaren eta arte-proiektuen produkzioaren esparruko eragile aktiboen jarduera profesionalizatzea da.

SORTZAILEEN GUNEA, PROIEKTUEK ETA HORIEN SORTZAILEEK BIZITZEN DUTEN LEKUA DA, DIZIPLINEN ARTEKO ELKARBIZITZA ERA TRANSBERTSAL BATEAN SUSTATZEN DA BERTAN.

¿Qué es el ESPACIO DE CREADORES?

Espacio de creadores es un lugar al que el/la artista, creador/a o agente cultural puede acudir en busca de asesoramiento o recursos técnicos y espaciales para poner en marcha o desarrollar un proyecto artístico.

El espacio de creadores ofrece una serie de servicios que contribuyen a la profesionalización del sector. Además ofrece un programa de visibilización y formación.

Desde el **Espacio de creadores** apoyamos las prácticas artísticas en todos sus formatos y fases con el fin de profesionalizar la actividad de artistas y agentes activos en el campo de la creación artística, del pensamiento, de la gestión y de la producción de proyectos artísticos.

ESPACIO DE CREADORES ES TAMBIÉN UN LUGAR HABITADO POR PROYECTOS Y SUS CREADORES, DONDE SE PROPICIA UNA CONVIVENCIA ENTRE LAS DIFERENTES DISCIPLINAS DE MANERA TRANSVERSAL.



Norentzat da SORTZAILEEN GUNEA?

Sortzaileen gunea, modu partzialean zein eksklusiboan, lanean ari diren artista, sortzaile eta kultur eragileei dago zuzenduta, baita arlo horretan ibilbide profesional bat abiatzeko borondatea erakusten duten guztiei ere.

ARTE ETA KULTUR AGENTEEN ESKURA JARTZEN DEN ZERBITZU ANIZTASUNA DELA ETA, PERTSONA BAKOITZARI DITUEN BEHARREN ARABERAKO AHOLKULARITZA ESKAINIKO ZAIO.

¿Para quién es el ESPACIO DE CREADORES?

Espacio de creadores esta dirigido a artistas, creadores y agentes culturales que se dediquen profesionalmente, de manera parcial o exclusiva, al sector del arte contemporáneo o que muestren voluntad por comenzar una trayectoria profesional en dicho sector.

DEBIDO A LA DIVERSIDAD DE SERVICIOS QUE SE PONEN A DISPOSICIÓN DE LOS DIFERENTES AGENTES ARTÍSTICOS Y CULTURALES, CADA PERSONA SERÁ ASESORADA SEGÚN SUS NECESIDADES.



Zerbitzuak

IRAGARKI TAULA

Modu fisiko edo birtual batean, Tabakaleraren web-orritik kontsultatu ahal izango dira artistei zein beste kultur eragile batzuei zuzenduta, indarrean diren egoitza, beka, laguntza edo diru laguntza deialdiak, nazio zein nazioarte mailakoak. Helburua, norberaren profilari egokitzen zaizkien bitarteko eta aukeren berri eskaintzea da uneoro.

LAGUNTZA JURIDIKO ETA LEGALA

Arlo hauek funtsezkoak izanik kultur eragilea profesionalizatzeko bidean, aldiaren behin, arloko zenbait profesionalak aurkezpen eta talde-dinamikak eskaini eta landuko dituzte arte sorkuntzak alderdi juridiko eta legalei dagokienez egun duen egoeraren gainean.

Esaterako, jabetza intelektualari buruzko legediaren edo kontratuen analisiaren inguruko kontuetan egunean egotea izango da zerbitzu honen helburua.

ZERGA ETA LAN ARLOKO LAGUNTZA

Zerbitzu honek, profesionalen arteko lan harremanak ezartzeko unean beharrezkoak diren kontuei heltzen die oinarritzko modu batean.

Horien artean dago, adibidez, lan jarduerak garatzean sortzen diren zerga betebeharrak zein eskubideetan egunean egotea.

Profesionalen laguntzaz, eta saio orokorrak eginez edo Tabakaleraren web-orriaren bidez aurrez finkatutako hitzordu pertsonalizatu bidez, kontu horietan egunean egoteko beharrezko ezagutza eta oinarritzko datuak emango ditugu.

Nola egin faktura bat, nola egin Ogasuneko Jarduera Ekonomikoetako alta, alta hori zer epigrafetan egin behar den, Gizarte Segurantzako kuotak edo BEZaren hiruhileko aitortpena edo urtekoa...

Servicios

TABLÓN DE ANUNCIOS

De manera física o virtual, desde la web de Tabakalera, se podrán consultar convocatorias de residencias, becas, ayudas o subvenciones, tanto para artistas u otros agentes culturales, que estén vigentes tanto a nivel nacional como internacional para estar al día de los recursos y oportunidades que se adecuen a su perfil.

AYUDA JURÍDICA Y LEGAL

Siendo estas materias clave en el camino a la profesionalización del agente cultural, periódicamente, profesionales del sector llevarán a cabo presentaciones y dinámicas de grupo sobre la actual situación de la creación artística en aspectos jurídicos y legales.

Estar al corriente de cuestiones como la legislación de la propiedad intelectual o el análisis de los contratos serán objeto de este servicio.

AYUDA FISCAL Y LABORAL

Este servicio aborda de manera básica aquellas cuestiones necesarias en el momento de establecer relaciones laborales entre profesionales. Cómo estar al corriente con las obligaciones y derechos fiscales contraídas al desarrollar diferentes actividades laborales.

Con la ayuda de profesionales y mediante sesiones de carácter general o citas personalizadas concertadas previamente mediante la web de Tabakalera, proporcionaremos los conocimientos y datos básicos para estar al día en estas cuestiones.

Cómo hacer una factura, cómo darse de alta en Actividades Económicas de Hacienda, saber en qué epígrafe darse de alta, las cuotas de la Seguridad Social o la declaración trimestral o anual del IVA...



Baliabideak

NAZIOARTEKO EGOITZA PROGRAMA

Egoitzek arte sektorea profesionalizatzen laguntzen dutela harturik oinarri, gure nazioarteko egoitza programak proiektuak garatzeko denbora, espazioa eta baldintzak eskaintzen ditu. Tabakalerak bizilekua eskaintzen du egoitza-proiektuetarako, lanerako espazioarekin, ekipamenduarekin eta laguntzarekin batera.

EGOITZA MODALITATE DESBERDINAK DAUDE:

Arte produkzioa, Komisariotza, Bertakoa ez den eragile bat gonbidatzen duen bertako eragilea, Bitartekaritza, Ikus-entzunezkoa...

ARTE PROIEKTUETARAKO LANGUNEAK

Gehienez 8 estudio izango dira, ezaugarri eta neurri desberdinekoak, bertako artista eta eragileei zuzenduak. Gune horiek hartuko dituzten proiektuek gutxienez 2 aste eta gehienez 6 hilabeteko iraupena izango dute.

URTE OSOAN ZEHAR ZABALIK DAGOEN DEIALDI HONETARAKO BI MODALITATE DAUDE.

Lehenak proiektuak garatzeko beharrari erantzuten dio, edozein proiektu fasetan; horrelakoak gehienez sei hilabete egon ahal izango dira bertan. **Bigarrenak** behar berehalakoago bati erantzuten dio, proiektuaren fase zehatz batekin loturikoari alegia, eta horretarako espazio eta ekipamendu espezifikokoago eskaintzen dugu. Azken modalitate honetan, gehienez bi hilabeteko iraupena jasotzen dugu.

EKIPAMENDUAK TOKIAN BERTAN

Ekipamendu sorta bat dugu artistaren edo eragilearen eskura, proiektuak gauzatzea ahalbidetzeko: irudia editatzeko hiru kabina, soinua editatzeko kabina bat, argazki-laborategi bat eta plato bat.

Ekipamendu horiek erabili ahal izateko, arte-proiektu bat aurkeztu eta ekipamenduaren erabilera justifikatu beharko da, online formulario baten bidez.

Bestetik, kultura digitala eta teknologiarekin erlazioa duten baliabideak ere eskaintzen ditugu.

IKUS-ENTZUNEZKO EKIPAMENDUA MAILEGATZEA

Ikus-entzunezko hainbat ekipamendu daude artistaren eskura, Tabakaleratik kanpo erabili ahal izateko. Horretarako, ezinbestekoa da arte proiektu bat aurkeztea eta ekipamenduaren erabilera justifikatzea, ekipamendua erabiltzeko beharrezko ezagutza frogatzearekin batera.

** Baldintzak eta erabil daitekeen ekipamenduaren zerrenda Tabakaleraren web-orrian kontsultatu.*



Recursos

PROGRAMA INTERNACIONAL DE RESIDENCIAS

Partiendo de la base de que las residencias contribuyen a la profesionalización del sector artístico, nuestro programa de residencias de ámbito internacional ofrece tiempo, espacio y condiciones para desarrollar proyectos. Tabakalera ofrece alojamiento, espacio de trabajo, equipamientos así como acompañamiento en los proyectos residentes.

HAY DIFERENTES MODALIDADES DE RESIDENCIA:

Producción artística, comisariado, un agente local que invita a uno no local, audio-visual, mediación...

ESPACIOS DE TRABAJO PARA PROYECTOS ARTÍSTICOS

El espacio de creadores reúne un total de 8 espacios de trabajo de diferentes características y dimensiones dirigidos a artistas y agentes locales. Estos espacios acogen proyectos desde un mínimo de 2 semanas hasta un máximo de 6 meses.

HAY DOS MODALIDADES PARA ESTA CONVOCATORIA QUE ESTÁ ABIERTA TODO EL AÑO.

La **primera** responde a una necesidad para el desarrollo de proyectos en cualquiera de sus fases y podrán permanecer hasta un máximo de seis meses. La **segunda** responde a una necesidad más inmediata relacionada con una fase concreta del proyecto donde ofrecemos espacio y equipamiento más específico. Esta última modalidad no podrá superar los dos meses de duración.

EQUIPAMIENTOS IN SITU

Ponemos a disposición una serie de equipamientos que estarán al alcance del artista o agente para posibilitar la realización de proyectos. Tres cabinas de edición de imagen, una cabina de edición de sonido, un laboratorio de fotografía y un plató.

Para hacer uso de estos equipamientos habrá que presentar un proyecto artístico y justificar su uso mediante un formulario online.

Por otro lado, también disponemos de recursos asociados a la tecnología y cultura digital.

PRÉSTAMO DE EQUIPAMIENTO AUDIOVISUAL

Ponemos una serie de equipamientos audiovisuales de diferente tipo a disposición del artista para que haga uso de ellos fuera de Tabakalera. Para ellos es indispensable presentar un proyecto artístico y justificar su uso así como acreditar conocimiento de uso del equipamiento requerido.

** Consultar condiciones y listado de equipamiento disponible en la web de Tabakalera.*



Programa

Sortzaileen gunean garatutako programaren helburu nagusia arte alorreko proiektu eta lan prozesuei ikusgarritasuna eskaintzea da, bereziki egoiliarrak aurrera eramaten ari direnei, baita profesionalizazioari lagunduko dioten prestakuntza prozesuak sendotzea ere.

IKUSGARRITASUNA

Egoiliarrek zein lanerako edo ekoizpenerako guneen erabiltzaileek, hala nola artistek, komisarioek edo ikertzaileek, Lantegi gunean beren proiektuak aurkezteko edo publikoarekin topaketa irekien bidez beren lan prozesuak partekatzeko aukera izango dute.

PRESTAKUNTZA

Lerro honek bi ekintza-foku nagusi ditu. Lehenak -artistei zuzendutakoak-prestakuntza jarraitua eskaini nahi du, eta horretarako lantegi eta saio intentsibo sorta bat antolatzen da. Bigarren fokua komisario praktikara, kritikara eta proiektuak kudeatzera dago zuzenduta, eta horretarako, bi urteko iraupena duen programa antolatzen dugu saio intentsiboekin.

Programa

El programa desarrollado en el **Espacio de creadores** tiene como objetivo principal ofrecer visibilidad a proyectos y procesos de trabajo artísticos, especialmente aquellos que están llevando a cabo los residentes, así como reforzar procesos de formación que contribuyan a la profesionalización.

VISIBILIDAD

Tanto los residentes como usuarios de los espacios de trabajo o de producción tales como artistas, comisarios o investigadores tendrán en el espacio Taller oportunidad de presentar sus proyectos o de compartir sus procesos de trabajo mediante encuentros abiertos con el público.

FORMACIÓN

Esta línea tiene dos focos principales de acción. El primero, dedicado a artistas, busca ofrecer una formación continua, para ello se organizan una serie de talleres y sesiones intensivas. El segundo de ellos está dirigido a la práctica comisarial, la crítica y gestión de proyectos, para el cual organizamos un programa de dos años de duración con sesiones intensivas.





TABAKALERA



KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

CENTRO
INTERNACIONAL
DE CULTURA
CONTEMPORÁNEA

Sortzaileen gunea. Harrera.
Espacio de creadores. Atención.

Ordutegia / Horario:
Astelehenetik ostiralera /
De lunea a viernes:
10:00-14:00

📍 3. solairua / planta

+Info
sortzaileak@tabakalera.eu
943 11 88 55

Andre zigarrogileak plaza 1,
20012 Donostia / San Sebastián
Gipuzkoa

tabakalera.eu



Gipuzkoako Foru Aldundia



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián